



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

Ostirala
2010-01-15

VIII. URTEA 1.903. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. LATABURU

Zeberio II.ak pilota indartsuak eta bote gutxiokoak hartu ditu

ELDUAN Tejados Aoiz
Erremonte Txapelketako
finala jokatu du bihar 6



HITZA

AMAIA ZUBIRIA
ABESLARIA

«Orain askozaz
lasaiago nago
musika
munduan»

KULTURA Kontzertua
eskainiko du gaur Tolosako
Fronton Kafetegian 2

AIERT BEOBIDE DANTZARIA

«Dantzan beti ari zara ikasten, bizitza propioa du eta aldatzen doa etengabe»

IBARRA Dantzari gazteak Alurr dantza taldearen ardura hartu berri du; erronkari «gogoz» heldu diola aitortzen du donostiarrak, bere bizitzaren «fase berri batean» iritsi baita 3

Gaurkoa partida gogorra izango dela diote Saralegik eta Olazabalek

PILOTA Ekaitz Saralegi amezketarra eta Eskudero, Mikel Olazabal aresoarra eta Arrutiaren aurka ariko dira Bigarren Mailako Binakako Txapelketan 7



E. MAIZ



N. GARZIA

K **Kirol jarduera****Gaur, ostirala****Areto futbola**

■ Bigarren mailan, Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan: Laskorain eta Idiazabal.

■ Usabalgo beheko kantxan hirugarren mailakoak: Laskorain - Athletic Club Lezo.

Bihar, larunbata**Saskibaloia**

■ 10:30ean, Usabalgo goiko kantxan infantil mutilak: Ego TAKE - Askatuak.

■ Usabalgo goiko kantxan 12:00etan kadete mutilak: Bide Bide - Zarauz.

■ Usabalgo goiko kantxan 16:00etatik aurrera, juniorrak: Orbela - Easo.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, emakumezko kadeteen futbol 11: Tolosa CF - Luberrí.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, infantil txikiak: Tolosa CF - Zarautz.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, preferente: Tolosa CF - Touring.

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, kadeteak: Tolosa - Usurbil.

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, infantil mutilak: Tolosa A - Legazpia.

Igeriketa

■ Usabalen, 15:00etatik 19:00etara, hegats igeriketako ligako hirugarren proba.

Etzi, igandea**Eskubaloia**

■ 10:30ean, Usabalgo goiko kantxan juniorrak: Tolosa - Usurbil.

■ Usabalgo goiko kantxa, 12:00etan, seniorrak: Tolosa - Zarautz.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etatik aurrera, alebinak. Lehenbizikoa zelaian: Beasain-Ordizia. Bigarren zelaian: Ostadar-Euskalduna.

■ 11:00etan, Usabalgo futbol zelaian, alebinak. Lehen zelaian, Añorga-Anaitasuna. Bigarren zelaian, Villabona-Urola.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30etik aurrera, alebinak. Tolosa - Hernani.

**Esleitu gabeko lau etxebizitza zozketatu dira**

AZPIEGITURAK Voith-Gorostidi esparruan esleitu gabe gelditu ziren lau etxebizitza zozketatu ziren atzo. Aurrekoetan bezala, lehentasuneko zerrenda osatu zuten. Atzoko zozketaren ostean hilaren 21 arte itxaron behar dute, behin betiko onarpena emateko. Honenbestez, datorren astean hasiko dira etxebizitzak esleitzen, zerrendan lehendabizikoa irten denetik azkenekora arte, eta egon daitezkeen ukoen arabera esleitu beharreko etxebizitzaren kopurua aldatu egin daiteke. **E. EZEIZA**

E **Elkarrizketa****AMAIA ZUBIRIA** > Abeslaria**«Kantu zaharrek sentimendu kolektibo baten oihartzuna dute»**

Kultura » Amaia Zubiria zuzenean entzuteko aukera izango da gaur gauean Frontonen; bere azken lana, 'Nabil', aurkeztuko du.

ESTI EZEIZA

Amaia Zubiria musikariak bere azken lana, *Nabil* izenekoa, aurkeztuko du gaur. Bertan, euskal kantutegi tradizionalako abestiak berreskuratu ditu. Fronton Kafetegian dohainik izango da emanaldia, 23:00etatik aurrera. Tolosako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako kultura sailaren laguntza jaso dute Frontonekoek, ekimen hau antolatzeko.

Euskal kantutegi tradizionalako hamabi abesti bildu dituzu.

Nik beti kantatu izan ditut kantu tradizionalak, nahiz eta beste batzuk nik egin edo sortu ditudan. Nire diskoetan beti sartzen ditut bi edo hiru kantu zahar, eta zuzeneko emanaldietan ere beti jotzen ditut. Hori da nire iturri naturala. Hala, kantu zaharrez osatutako disko bat egitea proposatu zidaten, eta gustura onartu nuen.

Hala ere, kantu hauez gain bi berriago ere sartu dituzu.

Bat Estitxuren *Agur Maria* da, eta bestea Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren *Hala ere*. Kantu hauek klasikotzat jotzen badituzte ere ez dira besteak bezain zaharrak. Gainera, azken kantu honetatik dator diskoaren izenburua, abesti hau 'nabil' hitzarekin hasten baita: *nabil eta nabilelako nago hain neke*. Abesti hauek esanahi berezia dute niretzat eta horregatik sartu ditut disko honetan.

Kantu zaharrek dira, baina moldaketaren bat egin al diezu?

Bai eta ez. Kantuak tradizionalak dira eta ez diet ezer aldatu. Hala ere, kantatzeko modua agian ez da horren klasikoa. Erritmoa ez da beti berdin eramaten, erritmo batekin kantatuak daude. Izan ere, esan beharra dago zuzeneko formatuan grabatu ditugula. Kantu batzuetan bakarrik eman behar izan diogu ukituren bat grabaketa gelan.



HITZA

Eguno musika nondik datorren ezagutzeko, atzera begiratu behar al da?

Atzera ahal den gutxi, baina begiratu behar da. Bakarrik jakiteko lehenagokoek zer egiten zuten. Baina gaur egun bizi gara eta gaur sentitzen dugun hori egiteko erabateko baimena izan behar dugu. Lehenagokoaren antza badu, baina ez badu ere, erabat zilegi da.

Euskal kantu hauek egungo musikaren munduan ere lekurik ba al dute?

Aspaldiko kantak dira eta oraindik ere agertzen dira, horrek esan nahi du, zerbait badutela. Kantu bat kantatu ahal izateko, lehendabizi laguntzarik gabe, hau da, ahotsarekin bakarrik kantatu behar da. Honenbestez, instrumenturik gabe abestu ezin daitekeena, ez da kantua. Baina hau nire iritzia da. Agian,

bihar norbaitek konbentzituko dit ezetz, baina nire ustez horrela da.

Zergatik duzu horren gustuko abesti tradizionalak kantatzea?

Abesti hauek asko maite ditut, eta nireak egiten ditut. Sorkuntza asko defendatzen dut, eta nik nire kantuen asko maite ditut, baina kantu zaharrek badute sentimendu kolektibo baten oihartzuna. Xabier Letek esaten zuen bezala, mintzoa bezala da. Barruan daukagun soinua edo hots hori sentimendu kolektibo batena da, denok sentitzen duguna.

Erraza al da horrenbeste urtean musika munduan irautea?

Erraza ez da inoiz izan. Hasierako garaietan ere zaila zen. Orain, hala ere, askoz ere lasaiago sentitzen naiz musika munduan. Sendoago nago, maitatua eta errespetatua sentitzen naiz, eta horrek konfiantza handia ematen du.

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak**GALDUTAKOAK**

■ **Argazkiak.** Eguberrietan kartulina beltz bat galdu nuen Tolosako Alde Zaharrean, argazki eta kopia batzuekin, azalean Karlis dendaren izenarekin. Aurkitu duenaren mesedez deitu dezala 653 72 92 46 telefono zenbakira.

E Elkarrizketa

AIERT BEOBIDE Dantzaria

Ibarra » Ikasturte hasieratik donostiarrak Alurr dantza taldearen ardura hartu du; «erronka gogoz» hartu duela aitortzen du, bere «bizitzaren fase berri batean» heldu baita.

NOELIA LATABURU

Alurrek Ibarren duen lokala izan da hitzordurako topalekua. Ondoren duen klaserako prestatu da dagoeneko Aiert Beobide (Donostia, 1978), arropa erosoarekin. Eta halaxe sentitzen da, eroso, dantzan; baita dantzak berarentzat suposatzen duena transmititzen ere. Izan ere, «zaletasun bat baino gehiago da dantza, bizitza da» berarentzat.

Aurten hartu duzu Alurren ardura. Zer suposatu du zuretzat?

Aurrerapauso bat izan da nire ibilbidean. 20 urte nituenetik eskolak eman ditut Donostian, baina beti ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzan batik bat, 6 urtetik 12-14 urterata bitarte. Horbukatzen zen gauza. Aukeran dantza taldeko hainbat dantzari ere ematen nizkien eskolak baina ez zen gauza bera. Proiektu hau zerbañt handiagoa da.

Helduekin lan egiteko aukera eskaini dizu, hortaz.

Lehen aldiz berak nahi duela horretara dedikatzen den jendea hartu dut. Alurrek egindako lanarekin zer etekin lortzen duzun ikusteko aukera ematen du. Haurrekin, aldiz, 12-14 urteetan beste gauzak egiten hasten dira eta bizitza galtzen dituzu, zure lana galdu bezala egiten da.

Nola heldu zitzazun aukera?

Eliren (Nosellas) bitartez jakin nuen Eduk (Muruamendiaraz) uzteko asmoa zuela, urte asko bertan eman ondoren. Edu ezagutzen dut Aukeran taldean elkarrekin gabilta-eta, eta lan dinamika eta ildo antzekoa zuen norbait nahiko zutela esan zidan eta animatu egin nintzen. Une egokian etorri zitzaizdan aukera, nire bizitza ere beste fase batean sartzen ari zen.

Ziur eman zenuen baiezkoa?

Erronka gogoz hartu nuen. Ez nuen Alurren barneko dinamika eta funtzionamendua ezagutzen, mundu ezezaguna zen niretzat eta gogoan nuen ezagutzeko.

Eta zer moduz lehen hilabeteak?

Gustura nago, batik bat beraiekin nahi dutelako eta gustatzen zaielako etortzen direlako, hobeto egin nahi dute eta hori ikaragarri notatzen da. Badakite lan egin behar dela gero etekinak jasotzeko. Lehen hilabete hauetan nire lan sistematik eta lan egiteko moduak planteatzen ari naiz lanean hasteko. Elkar ezagutzen ari gara, irakasteko funtsezkoa da elkar ezagutzeko, pertsona bakoitzari bere alderik onena nola ateratu jakiteko. Prozesu hau poliki-poliki egin behar da.



N. LATABURU

«Dantzariari bere alderik onena ateratzeko elkar ezagutzea funtsezkoa da»

Eta harrera nolakoa izan da?

Ona, ni oso gustura nago eta beraiek ere gustura daudela uste dut, hasieran pixka bat beldurtuta zauden, baina normala da. Dena ematen didate eta kontentua nago.

Edu Muruamendiaraz ezagutzen zenuela aipatu duzu. Bere ibilbideak presiorik suposatu al du?

Proposamena jaso nuenean, nik esan nien nik nire berezko ibilbidea nuela, ez nekiela noraino iritsiko nintzen. Inoiz ez didate berarekin konparatu, norberak bere ildoak daukala eta lasaitasuna transmititu didate hasieratik. Beti ere, jakinda nik Aukeran taldetik asko jaso dudala eta jakinda dantza munduan zertaz bizi izan naizen eta zein den nire ildo.

Nola definitzen duzu ildo hori?

Nire buruaren garaian arabera ildoak nahastuz doaz. Nagusia dantza tradizionala da eta honek eman dizkigun urrats eta koreografiak baliatuz erronka bat egin. Sortzen den egoera da, hau guztia emateko zer egin behar diegu gure dantzei, musikari, arropi...? Beste dizipli-

na batzuk landu behar dira, dantza klasikoko teknika, esaterako, dantza garaikideko sentsazioak, formak... Hori da nire ildo, dantza-bizitza. Guri bezala dantzari ere bizitza igarotzen zaio. Azken batean, diziplina anitzak dira baina gure dantzetan oinarrituta.

Zenbat talderen ardura duzu?

Lau talde ditut une hauetan: Baintz, batetik, 14 eta 18 urte arteko gaztetxoak. Hau da nirekin hasten den lehen taldea. Gero dut Sorka, oraindik ikasten ari direnak. Eta gero dago Sua taldea. Azken bi hauek nahastu egiten dira. Gero eskualdeko taldeetatik etortzen den jende helduez osaturiko taldea dut, oinarritzako.

Mutilen taldea ere sortu du aurten lehenengoz, ezta?

Ai, noski! Alurrek erronka handia zuen mutilen aldetik. Talde finkoa mantentzea aspalditik nahi zen eta orain 8 mutilez osatutako taldea izatea lortu da. Mutil duntzen enbeteak egiten ditugu, ezpatekin eta makilekin, esaterako.

Nola antolatzen dituzu klaseak?

Nire oinarria dantza klasikoa denez —12 urte daramatzat Donostian—, eta niri gero euskal dantza tradizionalerako oso baliagarri egin zaidanez beraie ere oinarri-erako mugimenduak barnertzea gustatzen zait. Horretarako daude hemen barrak. Honekin memoria, kolokazioa... lantzen dira. Horrela hasten da klasea. Tarteka garaikideko mugimenduak sartzea ere gustatzen zait, lurretik-eta. Beste dantza estiloak ere sartzen ditut, dantza-eraren osotasuna eta bata bestearekin nola lagundu daitekeen ikusteko. Fisikoa mantentzeko, abdominalak eta flexioak egiten ditugu. Zutik jartzean, berriz, gure «dantza biblioteka» erreparatzen dugu, pausak-eta definituz.

Ikuskizun berriren bat prestatzen ari al zarete?

Sorka ikuskizuna prestatzen ari gara, hasiera badugu eta poliki-poliki zentzua hartzen ari da. Sua ere hor mantenduko dugu baina emanaldi aldetik lasaigo ibiliko gara.

Eta zuk antolatzen duzu guztia?

Printzipioz bai. Beraiek ere gaita-

suna badute koreografiak muntatzeko eta moldatzeko. Nik planteamendua ekartzen diet eta beraiekin hitz egitea gustatzen zait esker horren gainean. Unean sortzen diren gauzak sartzea ere gustatzen zait. Hori da muntaiaren bizitza.

Alurr eszenatikian bestaldekik ikusi duzu arduradun zarenetik?

Bai, kosta egiten zait. Hemen egon aurretik sentsazio bat nuen, gero eta barruago gauza gehiago ikusten dituzu. Lan polita dago hor eta emaitza ona du. Honelako esfortzu izugarria egiten duen talde bati ezin zaio gehiago eskatu, atzetik

«Beste dantza estiloak irakastea gustatzen zait, bata bestearekin nola laguntzen den ikusteko»

«Oso lan polita dago Alurren, esfortzu izugarri hau egiten duen taldeari ezin zaio gehiago eskatu»

«Dantzan beti ari zara gauzak ikasten; bizitza propioa du eta aldatzen doa etengabe»

dagoen jende guztiak gogo izugarria du. Ezin da konparatu dantza profesionalarekin.

Zuk biak ezagutzen dituzu.

Bi gauza ezberdin dira baina aldi berean ez dira hain ezberdinak. Bakoitzak zer eskaintzen dion bere dantza zaletasunari, horixe da. Alurren kasuan, puntu bateraino eskatu daiteke, Aukeranen gehiago exjitu daiteke.

Zuri ibilbideari begira jarrita, zein izan zen zure hasiera?

Nire amaren erruz edo berari esker hasi nintzen dantzan. Garai hartan nire ama euskal dantzarien biltzarreko idazkaria zen, nire aita telebistan, nire arreba antzerkian... 9 urte nituela, amak esan zuen «Inork ez dit dantza egin... Hau dantza da!». Eta oso ondo konektatu nuen. 13 urterekin Josetxo Fuentesek eskola dantzatik deitu zidan ea bertan parte hartu nahi nuen. Bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen zuen. Eskola hau izan zen niretzat dantzaren unibertsitatea. Pila bat ikasi nuen. Nire lehen ikuspegia izan zen dantza-erakikoa. Orduan Edu ezagutu nuen eskolan eta 21-22 urterekin Gozategiz Blai proiektua aterazen. Ondoren, Aukeran sortu zen. Orduetik han nago. Bidean, gauza gehiago ere egon dira.

Dantzan zerbañt egiteko al duzu oraindik?

Dudarik gabe. Dantzak bizitza propioa du eta aldatzen doa, aurreratzen doa, estilo berriak sartzen doaz eta zaharrak ere beti hor daude ikasten jarraitzeko.

Galdera potolosa: Zer da dantza zuretzat?

Zaletasun bat baino askoz gehiago da dantza, bizitza da.



Zeberio II.a, Badiola, Lizaso eta Urriza, atzoko pilota aukeraketan. PATXI GOÑI

Pilota indartsuak eta bote gutxikoak aukeratu ditu Zeberio II.ak finalerako

Elduain » Finalen bi aurkari «oso langile eta elkar oso ondo ulertzen direnak» izango dituztela dio aurrelari elduaindarrak.

ERREDAKZIOA

Zeberio II.aren eta Lizasoren moldeek markatu zuten atzo egindako pilota aukeraketa II. Tejados Aoz Erremonte Txapelketako finalerako. Hernaniko Galarreta frontoian egin zuten lau pilotari finalistek aukeraketa. Zeberio II.ak eta Badiolak material indartsua eta bote gutxikoak hartu zuten. Urriza eta Lizasok joku arineko eta bote dezenteko pilotak aukeratu zituzten. Beraz, Zeberioaren eta Lizasoren lehentasunek agindu zuten, Elduaingoa aurrelari astintzailea eta tantoa azkar egiten duten horietakoak baita, eta Lizaso atzelari oso teknikoak, inork baino hobe errebotea jaso eta pilota jartzen duena. Bihar jokatu da final handia, 16:45ak inguruan, Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

Aukeraketan hiru pilota mota zeuden. Batzuk indartsuagoak, beste batzuk bote erdikoak eta hirugarrenak arinagoak eta saltariagoak. Zeberio II.ak eta Badiolak 128, 129, 130, 131 y 132,5 gramotako pilotak hartu zituzten eta Urriza eta Lizasok 133, 130, 131, 127 y 128,5 gramotakoak.

Pilotariak gustura

Aurrelari elduaindarrak bere gustuko pilotak aukeratu zituen. «Pisu eta gustu guztientzako pilota mota egin zuten lau pilotari finalistek aukeraketa. Zeberio II.ak eta Badiolak material indartsua eta bote gutxikoak hartu zuten. Urriza eta Lizasok joku arineko eta bote dezenteko pilotak aukeratu zituzten. Beraz, Zeberioaren eta Lizasoren lehentasunek agindu zuten, Elduaingoa aurrelari astintzailea eta tantoa azkar egiten duten horietakoak baita, eta Lizaso atzelari oso teknikoak, inork baino hobe errebotea jaso eta pilota jartzen duena. Bihar jokatu da final handia, 16:45ak inguruan, Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

Jokatu dituen bost finalak irabazi ditu Zeberioak. «Orain arte txapelketa honetan ondo aritu naiz. Badiola eta biok txapelketa nahiko oso daramagu, baina finalean bi aurkari oso langile izango ditugu, elkar oso ondo ulertzen direnak, eta huts gutxi egiten dituztenak. Hauei irabazteko asko jokatu behar dugun».

Imanol Badiola bikotearentzat binakako finala jokatzeko duen lehena aldia izango da. Azpeitiko atzelariak 31 urte ditu eta bere kirol heldutasunean dago. «Nire lehenengo final handia da eta arazorik gabeko daramat hori. Baina egia da oihartzun berezia duela honek guztiak. Ea final on bat ateratzen den eta guk irabazten dugun», azaldu du Badiolak.

Bere aldetik, Lizaso gustura azaldu zen pilotekin. «Gustu guztietarako materiala zegoen, pilotari bakoitzaren ezaugarri ondo etortzen zaiena». %50ean ikusten du finala Doneztebeboak. «Zeberio II.ak eta Badiolak bere maila igotzen dute Galarretan eta oso ondo jokatzeko dute elkarrekin. Final oso borrokatua izango da».

Bere hirugarren txapeljarraian irabazteko, Urrizak badaki partida osoa jokatu behar duela. «Badiolaren errebotea bilatzea aukera bat da, baina horrekin bakarrik ez da final bat irabazten», dio aurrelari iruindarrak. «Mugitu egin behar duzugu, pareta ukitu eta gauza asko ondo egin».

Sexty Sexers eta On Benito taldeen kontzertua Gaztetxean

Alegia » Gazako sarraskia gogoan, hilaren 18an 'To shoot an elephant' dokumentala eskainiko dute ere Gaztetxean.

ERREDAKZIOA

Sexty Sexers eta On Benito taldeen kontzertua emango dute gaur Alegiako Gaztetxean. 22:00ak aldera

hasiko da emanaldia. Kontzertuak berez abenduan egiteko zen, baina elurra zela eta bertan behera gelditu ziren.

Bestalde, hilaren 18an, astelehena, Gazako sarraskiaren lehenengo urteurrena dela eta, Alegiako Gaztetxeak mundu mailako deialdiarekin bat egingo du. Horrela, *To shoot an elephant* dokumentalabotako du. Emanaldia 21:30ean hasiko da.

Bi txapelketetan ariko dira Aurrera-Saiazeko pilotariak asteburuan

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz pilota eskolako Euskadiko Txapelketako eta Udaberri Txapelketako partidak izango ditu asteburu honetan. Euskadikoari dagokionez, etxean lau partida jokatuko ditu, Beotibarren. Guztiak bihar izango dira, 10:00etan hasita. Beste bi partida eskualdeko bi talderen aurka jokatuko dituzte. Gaur, 19:00etan, Leitzan Aurreraren aurka, 22 urte azpikoetan. Eta gaur ere, 20:00etan Ikaztegiatan

Intxurrekoen aurka kadete mailan.

Udaberri Txapelketari dagokionez, lau partida izango dituzte asteburu honetan. Guztiak bihar jokatuko dira, 17:00etan hasiko den jaialdian, eta bigarren Behar-Zanakoak izango dituzte aurkari. Beotibarren izango dira beste biak, 18:00etan hasita eta lehenengo partidaren Behar-Zana taldekoen aurka jokatu dute.

Laburrak

Ikastaroa sukaldaritzako begetarianoari buruz

ANOETA » Sukaldaritzako begetarianoaren inguruko ikastaroa antolatuko dute Kuku elkarteak. Otsailaren 22an hasi eta martxoaren 22ra arte iraungo du. Astelehenean izango da, 18:00etatik 20:00etara. Ordaindu beharrekoa 45 euro izango da. Izena eman daiteke Kuku elkarteak, udaletxean edo kiroldegian hilaren 18a arte, baina azken egun horretan 12:30ak arte bakarrik.

Argazki lehiaketa Jesusen Bihotzaren Kultur Astean

VILLABONA-ZIZURKIL » Jesusen Bihotza IkastolaK hilaren 25etik 31 bitartean Kultur Astea antolatuko dute ekintza ugariarekin. Aurtengo berrikuntzarik interesgarrienetakoa argazki lehiaketa izango da. Deialdia irekia izango da. Izena emateko azken eguna gaur izango da, Jesusen Bihotza Ikastolako idazkari-tzan (Zentroko eraikinean), 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Saralegi eta Olazabal nor baino nor

2. Mailako Binakako Txapelketan

Pilota » Saralegi eta Eskudero, Olazabal eta Arrutiren aurka jokatuko dute gaur 18:00etan Getariako pilotalekuan.

ENERITZ MAIZ

Gaur 18:00etan Getariako Saha-saga pilotalekuan ikusiko dute elkar Mikel Olazabal eta Ekaitz Saralegi pilotariak. Bigarren Mailako Binakako Txapelketari hasiera emango diete lehiaketako lehen partida jokatu. Aspekto Mikel Olazabal pilotariak Asier Arruti izango du atzelari eta Asegarceko Ekaitz Saralegi, berriz, Iñaki Eskudero.

Partidaren bezperan bi pilotarien hitz egin dugu eta biak binakako txapelketara puntu «onean» iritsi direla adierazi digute. Bestalde, gustura daude Bigarren Mailako Binakako Txapelketan, beraien enpresak aukera hau eskaini dietelako. Biek ala biek, ez dute partidarik jokatu Getariako Saha-saga pilotalekuan baina frontoi arazorik izan.

«Aurkari gogorrak»

Azken aldian, Saralegi amezketarra lehen mailako partidak jokatzera iri zen, baina «bigarren mailan jokatzeko ezberdina izaten da. Pilotak pixka bat baxuagoak, arinagoak izatean jendeak errazago jokatzeko», esan du. «Lehenengo astean esan ziguten txapelketan jokatzeko gurela eta entrenamenduak beti bezala egin ditugu», gaineratu du.

Txapelketa «polita» antolatuta duteela uste du. «Bigarren mailako txapelketa ona egin nahi zutela eta lehen mailan sartzeko aukerarik izan ez zuten pilotariak aukera emango zirela esan zuten, eta nik uste dut horrela egin dutela», dio



Ekaitz Saralegi amezketarra eta Mikel Olazabal aresoarra lehiatuko dira gaur 18:00etatik aurrera. E. MAIZ - N. GARZIA

Saralegi. «Astero-astero jokatuko ditugu partidak eta ikusi egin beharko da», gaineratu du.

Oraingoan, Erasungo semea den Iñaki Eskudero egokitu zaio atzelari «berarekin bestela ere ondo eramaten naiz eta kantxaren barruan hitz egiteko eta baita partiduetara elkarrekin joateko ere ona da», azaldu du. Zortzi bikoteen artean, bikoterik gogorrena zein den esateko ez da gai ikusi

«Iñakirekin ondo eramaten naiz eta kantxan hitz egiteko ona da hori»

«Partida guztiak zailak izango direla iruditzen zait eta guztiak dute zerbait ona»

EKAITZ SARALEGI
Pilotaria

amezketarra «partida guztiak zailak izango direla iruditzen zait eta bikote bat esatea zaila da, bikote guztiak dute zerbait ona eta hobe isilik egotea», gaineratu du.

Lehenengo partidako aurkariei buruz berriz hauxe dio: «Jokatu izan dut lehen ere bere aurka eta aurkari gogorra da. Gainera txapelketak momentu onean harra-patu duela uste dut eta aurkari gogorrak izango direla iruditzen zait, bai Mikel eta baita Arruti ere».

Gaurko partidaren aurrean oso lasai aurkitzen da Ekaitz Saralegi, «beste partiduetara bezalaxe joango naiz. Partiduko irabaztera joan gara denak eta batzuetan ongi ateratzen dira eta besteetan gaizki». Txapelketa on bat ateratzea gustatuko litzaiokete eta bi enpresak horretan saiatu direla uste du pilotariak. Gainerakoan, jakina da lehen mailan pilotari guztiak to-kirik ez dagoela eta beraz Saralegi pozik dago aukera honekin. «Nire

aldetik pozgarria da baina txapelketan sartu zitezkeen gehiago geratu direla hor jokatu ezinikusita pena ematen dit, batez ere, lagun ditudan Olaetxea edota Mendizabal bezalako pilotariengatik», azpimarratu nahi izan du.

«Beraiei irabaztea oso zaila izango da»
Mikel Olazabal gaztea da eta maila txukuna erakusten ari da partidaz

«Bikote parekatuak gaude eta txapelketa izenez handia da. Ea jokoaz ere horrela den»

«Asierrek eta nik konfiantza handia dugu. Ongi ezagutzen dugu elkar»

MIKEL OLAZABAL
Pilotaria

partida. Maila onean iritsi da eta emaitza onak lortu ditu azken partidetan. Entrenamenduak berriz betiko moduan egin ditu «fisikoa lantzen berdin jarraitu dugu eta frontoian ere bai. Arruti eta biok herenegun egin genuen entrenamendua eta biok ere nahiko ongi aritu ginen», kontatu du.

Txapelketari dagokionean «ize-nez txapelketa handia dela uste dut. Asegarcek bikote handiak jarri ditu eta Asperen beste hiru bikoteak ere handiak dira. Guk ere, gurea ematen baldin badugu besteak estutzeko gai garela uste dut. Izenez handia eta jokoaz ere ea hala izaten den», dio aresoarrak.

Bikoteei begiratu gero berriz «denak nahiko antzeko bikoteak ikusten ditut, parekatuak gaude. Egun batean batek irabazi dezake eta besteak besteak. Ez dut uste bikote bat bestea baino gorago dagoenik», azaldu du.

Atzelari lanetarako, berriz, Asier Arruti usurbildarra egokitu zaio. «Oso gustura nago bikotearekin. Entrenamendu fisikoak askotan egin ditugu elkarrekin eta frontoian ere batzuetan bai. Elkar oso ongi ezagutzen dugu, konfiantza handia dugu eta oso ongi moldatzen gara. Egia esan berarekin jokatu behar dudala jakin da oso gustura», dio Olazabalek.

Biharko partiduko aurkariei buruz hauxe esan digu: «Saralegi oso momentu onean dagoela uste dut. Azkenengo partiduetan eskuinaren txispa handiarekin dagoela ikusi da eta tantoa bukatzerakoan artista handia izan da beti eta batik bat gantxoarekin bukatzen. Erraz bukatzen du. Atzean ere pilotari oso seguru dauka eta bi esku onak dituen eta hori garrantzia handia da. Beraiei irabaztea oso zaila izango da, baina gu ere hasieratik saiatuko gara ahalik eta hobekien jokatzeko eta ea irabazteko gai izaten garen», dio Mikel Olazabal gazteak.

Enpresak eman dion aukera poztekoa den ere galdetu digu: «Bai dudarik gabe. Beste hirurak pilotari handiak dira eta niretzat beraiekin sartzeko polita da. Ea txapelketa ederra jokatzeko dugun denok eta aurrera jarraitzen dugun».

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Azkenen arabera 1500ak arte jantziak eragileak solai argintatuak dira.
SAGARUM JARTZEN: www.tolosalkohitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95 telefono zenbakia

Higuntzak
ETXERITZAK
SALBU

Tolosa. (Voith-Corvetti-65) Enkaintza berritua erabiltza salgai (75m²). Promotorearen bidetzuarekin salmenta. Sakaldea eta 2 komandapuntuak, egurgela handia eta 2 logia. Argitasun. Komanda izan orok, beste gutxiak konponabegia. 2 terraza edo eta baita txantxarekin. Pribatua salmenta. 658-72 92 85.

ENBENTAN HARTU

Tolosa. Pisu errentan hartu nahi dugun bikote bat gara. Interesatuak deitu: 630-66 08 82.

Teknologia
INFORMATIKA/BIDEG-JOKUAK
GAINERRAKOAK

Informetika teknologia. Informetika teknologia enkaintzen da zuen arazoak konpontzeko: pcbalordi@hotmail.com edo 675-05 18 85. Edota 675-20 17 05 eta igorri-neratzena@yahoo.es.

AUKERA/BIDEA/ARGI-AZKARITZA
GAINERRAKOAK

LG new chocolate BL20 mugilar errentatutagabea. LG new chocolate BL20 mugilar librea, errentatu gabera, saltzen da. 60euro. Tel. 688-63 39 09.

Lan-iragazkiak
LAN ERKANTZAK
GAINERRAKOAK

Tolosa. Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat

Alakain saragom lokal bat konpartitu nahi duen psikologia bat



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: **BERTAKO HEDABIDEAK** eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Hitza-k Bai Euskarari

Gipuzkoako Foru Aldundia

A Agenda

Dedialdia

■ **Ibarra.** Gaur, ostirala, Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa izango da Xepela elkartearen 22:00etatik aurrera. Parte hartu nahi dutenek elkartearen bertan eman ahal izango dute izena hasi baino lehen.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Abian! aldatuta sozialaren alde egiteko sortutako plataformak bilera egingo du datorren astelehenean, hilak 18, 19:30ean Tolosako LAB sindikatuaren egoitzan. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte hitzordura.

■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako informazioa eta izen-ematea otsailaren 8a arte, www.tolosaoudala.org/inauteriak helbide elektronikoan.

■ **Tolosa.** 2010eko mendi federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre elkartearen (Gudari, 5) astelehenean eta asteazkenetan 19:30etik 20:30era hilaren 31a arte. alpinozture@hotmail.com helbide elektronikoaren bidez ere egin daiteke. Antolatzailea: Alpino Uzturre mendi elkarte.

■ **Tolosa.** Eski irteera antolatuta du Oargik eta Sanblaspikek hilaren 23-24rako Bareges-La Mongieko estaziora. Autobusa, bi eguneko forfai eta gau bat pentisio erdian aterpe batean, 110 euro inguru bali du. Izena emateko, info@oargi.org helbide elektronikoan edo 688 698642 telefono zenbakian (19:00etatik aurrera) eskuratu daiteke.

■ **Asteasu.** Sagain mendi taldeak Murumendirajoateko irteera antolatuta du. Irteera igandean izango da eta izena emateko epea bihar amaituko da. Kiroldegian eman behar da izena. 12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik gorakoek, berri, 10 euro. Irteera egun erdiko iraupena izango du eta autobusa

08:00etan aterako da Udaletxetik.

■ **Villabona-Zizurkil.** Aurten ere Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastola osatzen duten langile eta guraso elkarte kide guztiak Kultur Astearen antolatutako buru belarri murgildurik dabilen Kultur Astea hilaren 25etik 31 bitartean izango da eta aurtengo berrikuntzarik interesgarrienetarikoa argazki lehiaketa izango da. Deialdia irekia izango da eta ahalik eta parte hartze handiena lortzea gustatuko litzaieke. Parte hartu ahal izateko izena gaur eman behar da Jesusen Bihotza Ikastolako idazkaritzan.

Musika

■ **Tolosa.** Capsularen kontzertua Bonberenean gaur 22:30ean.

■ **Tolosa.** Ama sayren bihar kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** Andrej Wajda zuzendariaren *Katyn* filma bihar Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *El Club de las Mujeres Invisibles* antzezlan gaur Leidor aretoan 20:30ean.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Igor Obesoren beira lanak ikusgai hilaren 31 arte GKO Galleryn (Kale Nagusia).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
 ■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
 ■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Ama-ya kalea. 112.

HIZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Tolosatik Barakaldoko BEC-era

TOLOSA ● Bonberenea Txaranga, Tolosako Buruhandi zein Erraldioen konpartsa eta Tolosako Gaiteroak Dultzaineroak taldea Barakaldoko (Bizkaia) BEC-en izan ziren pasa den larunbatean. Goizean goiz irten zen autobusa, erraldoiak zeramatzen kamioiarekin

batera, Bilboko konpartsek antolatutako Pirritx eta Porrotxen *Imien Lagunak* emanaldian parte hartzeko. Bi saio izan ziren eta 9.000 lagunetik gora bildu ziren bertan. «Ezbairik gabe, festa handia Bilbon bitzitako», diote Bonbereneakoe. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
 Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
 Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N.A.:

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K.: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____

Abenduaren 13ko 1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babesteko, beteki, jakinarazten dirugu sare datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.-en fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregistrak dituen enbaitzaren berriraketa. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontrat egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L., Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info